

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Sexuaren miraria

EZ DA LAN MAKALA arrosa berri bat sortzea. Dirua dela-eta, hartu eta burutu egiten den lana da. Honegatik jartzen zaio gero “William Shakespeare”, “Julio Iglesias”, “Pink Panther”, “The McCartney Rose”, “Leonardo da Vinci”, “Michelangelo”, “Rodin”, “Lilli Marlene”, “President Macià”, “Tchajkovski”, “Gina Lollobrigida” edo “Louis de Funés” bezalako izena; ezaguna eta sortu ordurako erantsirik darama sona. Haiek gogotik saiatuta eskuratu zutena arrosagileak di-da. Txarra edo ona, sona. Sona eta txanpona. Alde ederrekoak jarri daitezke, baina arrosa dotoreari jende itsusi horren izenak txanpona...

Izena eman aurreko lanik bada, baina, arrosagintzan. Arrosa berriak sortzeko lehendik baditugun arrosak nahastu beste biderik ez dago. Nahaste honek dakar hibridoa. Hibrido berria lortzeko eme eta ar jakinak gurutzatuz ondutako haziak behar dira. Hauek erein eta, genetikaren aita izan zen Mendelek zioenaren arabera, heren banako hiru multzotan bil ditzakegu jaioko diren landareak: batzuk amaren antzekoak, beste batzuk aitaren gisakoak eta hirugarrenak nahas-mahasekoak. Azken hauek dira interesgarriak, bai arrosagintzan aberastu nahi dutenentzat, bai natura berarentzat ere. Ez aitaren itxurako, ez amaren taxuko ez diren horiek garatuko dituzte, agian, ordura arte espezie horrek izan ezin izan dituen tankeretako ezaugarriak. Arrosetan, adibidez, usain berriak, eite ezezagunak, lore-kolore deigarriak, itzelezko emankortasuna...

Aldaera berri batek espezieari egundoko mesedea dakarkio, etorkizunerako bidea zabaldu eta iraupena errazten dio. Zenbat eta aldaera ugariago, datorrena datorrela, ikuskizun dauden etorkizuneko bihurrikeria eta komeria, zaharra ez den edozein berrira edo mudantza ekologikora egokitzeak aukera gehiago. Naturak badaki, nahastean dago gaurko etorkizuna, etorkizun oparoa.

“Miracle” arrosa. Arrosagileak, lore baten alde arraren polena ireki gabeko beste lore baten emeari eskuera jarriko dio, eta beste inongo arraren polena etortzeko bidea erabat itxi. Emeak emango duen fruituko haziak erein eta mirarizko ezustekoa noiz gertatuko, aiduru egongo da artista. Gero, jarriko zaio izena... Herbereetako Aalsmeereko G.Verbeek 1958an kaleratu zuen arrosa eder bati jarri ziona bezala: “Miracle”.



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. *Celosia argentea* var. *plumosa* izeneko landarea oparitu didate, argazkian ikus daitekeena bezalakoa, eta besterik gabe jakin nahi nuke ea zer egin behar dudana hura modu egokian zaintzeko.

Maritere Gonzalez (Berango).

Iepa Maritere. Dotorea da bai zelosia landarea. Kolore biziko loreak ematen ditu. Gauza bakarra du “txarra”, urteko landarea izatea. Motzatxo!

Landare hau lurralde tropikaletatik dator, beraz hango ingurunea imitatzen saiatu behar zara, loraldia ahal den gehien luzatze aldera.

Argi asko dagoen toki beroan jarri, eguzkitsua bada hobe. Lurrari busti eutsi maiz-maiz ureztatuz eta tarteka bere ingurua ihintzagailu batez hezetu. Argi aire korronteekin eta hotza, ezta hitza aipatu ere!

Lore deigarri horrekin bi aukera dituzu: ihartzen hasi ordurako moztu eta lehor mantendu, koloreari ederki eusten baitio, edo bere bidea egiten utzi eta agian haziak emango ditu. Hurrengo udaberriaren atarian hazi horiek erein eta landare berriak ekartzea erraza da.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

LIZARRALDE SOINUA TXALAPARTA, S.L.



SOINU PROFESIONALA
EREMU HANDITARAKO
MEGAFONIA



Tel. / Faxe 943 226 977 • txala@txala.euskalnet.net • 01012 GASTEIZ